

**Arraunketa** ♦ Kortaren trainerua ezustekoa emateko zorian izan da BBK Banderan

# Eskerrak Castrori

*Kantabriakoei goizegi ari zaie bukatzen denboraldia, Orio eskas dabil uneotan, eta Koxtape lasaiegi aritu da*



PABLO S. QUIZA

Castro denboraldi bukaera ona ari da egiten.

Ramon Basaldua / Bilbo

EZ ZEN ezustekorik izan BBK banderan, eta Oriok, faborito nagusiak eskuratu zuen garaipena. Aurretik, Koxtapek izan behar zuen oriotarren aurkari nagusia, baina pasaitarrak barik Castrokoak izan ziren Orioren garaipena kolokan jartzeko gauza izan ziren bakarrak. *La Marinera*-k ezin izan zion eutsi lehenengo jardunaldian lortutako aldeari, bigarren jardunaldian kale egin baitzuen hirugarren zibogana. Gauzak horrela, Orioren denboraldiko zazpigarren bandera izan da BBK.

**Orio** • Oriotarrak garaile izan ziren Bilbao Bizkaia Kutxa banderan, baina ezin da esan fin ari direnik denboraldi amaiera honetan. Tito Manzillaren gizonak uste baino arazo gehiago izan zuten BBK bandera irabazteko. Lehenengo jardunaldian ez zuten zorte handirik izan kale zozketan (laugarrenetik jardun zuten), baina bigarren jardunaldian, bigarren kaletik arituta, estu eta larri ibili ziren laugarren kaletik jardun zuen Castrori

## El Corte Ingles, denboraldiari agur esateko

■ EUSKAL HERRIKO traineru gehienek dagoeneko amaitu dute aurtengo traineru denboraldia. El Corte Ingles bandera baino ez dago jokatuko. Datorren asteburuan jokatuko da denboraldiko az-

ken estropada, eta zortzi traineru lehiatuko dira bi txandatan banatuta. Isuntza, Kaiku, Arkote eta Lutxana izango dira lehenengo txandan, eta Urdaibai, Orio, Koxtape eta Santurtzi bigarren

goan. Zenbait estropadatan izandako emaitzak hartu dituzten El Corte Inglesek bi txandak osatzeko. Koxtape eta Isuntzak berdinduta amaitu dute sailkapenean, baina azken estropadan,

BBKn, pasaitarrak lekeitiarren aurretik izan zirenez, *Erreka* izango da ohorezko txandan. Castro bosgarren geratu da sailkapenean, eta ez du El Corte Ingles banderan lehiatzetik izango.

aurrea hartzeko. Orio ondo badabil ere ez dabil espero bezain ondo. Igandeko estropadan palada erritmoa biziegia izan zen.

**Castro** • Jose Luis Kortaren koadrilari goizegi bukatu zaio denboraldia. Castrók kale egin zuen Kontxako banderan, eta inork baino gogo gehiago ekin zion Bilbao Bizkaia Kutxa banderari. Jose Luis Kortak aldaketa pare bat egin zuen tostetan berak babor aldetik jardun zuen eta *La Marinera* bikain aritu zen BBK banderan. Lehenengo jardunaldian denbora onena egiteaz gain, bigarren goan bandera eskuartzeko zorian izan zen.

Hirugarren zibogana, ostera, kale egin zuen. «Zibogana zabaletik hartu eta korrontarekin kontuz ibiltzeko eskatu nien patroiarri eta aurrelariari. Azkenean, trainerua trabatuta geratu zitzaigun eta bandera galdu egin genuen. Ordurako Orio gure aurretik zegoen arren, ziur nago bandera geuretzat izango zela. Pena izan da, baina oso pozik nago larunbat ezin igandean egin ditugun estropadekin», adierazi zion Kortak atzo EGUNKARIARI.

**Koxtape** • Koxtape negargarri aritu da BBK banderan. Pasai Donibaneko traineruak lehen kaletik onenetik jardun zuen bi jardunal-

dian, baina ez zen garaipena lortzeko borrokan izan. Ulertzekoa izan daiteke arraunlarietako motibazioa galtzea Kontxako bandera irabazi ondoren. Ordea, inondik eta inora ezin da onartu aurreko astean jai giroan ibili zirela entzutea. Bilbao Bizkaia Kutxa banderak errespetu gehiago merezi du.

**Urdaibai** • Busturialdekoek ez zuten zortetik izan kale zozketan, eta erdiko kaleetatik jardun behar izan zuten bi jardunaldietan. Lehenengo Koxtaperen aurretik amaitu zuten arren, bigarren goan ezin izan zioten eutsi aldeari kale txarretatik jardun zutelako.

## Athletic ♦

### Denboraldiko aurrekontua eta iazko kontuak aztertuko dituzte gaur bazkideek

*Athletic eta Mallorcaren arteko partidua igandean jokatuko da*

Ramon Basaldua / Bilbo

ATHLETICEKO bazkideen ordezkarien biltzarra izango da gaur Bilboko Euskalduna jauregian. Iazko kontuak eta aurtengo denboraldirako aurrekontua izango dira eztabaidagai arratsaldeko 7:00etatik aurrera.

Jose Mari Arratek zuzentzen duen direktibak 5.804 milioi pezetako aurrekontua (232 milioi libera) aurkeztuko du gaur eta aurretik behintzat ez dirudi Ibaiganeko ardurdunek arazorik izango dutenik bazkideen ordezkarien baimena jasotzeko.

Athleticeko direktibak egindako planteamendua araberak, bazkideen kuotek %6ko igoera izango dute. Aurrekontuko zatirik handiena, futbolari eta langileen soldatzen ordaintzeko erabiliko da.

Aurreko denboraldiko kontuei dagokienez, 27,3 milioi pezetako superabita aurkeztuko dute Athleticeko ardurdunek. Sergio Corino saldu izanak ekarritako dirutzari esker izan da superabita hori.

### Asteko lehen entrenamendua gaur

Asteko lehen entrenamendua egingo dute zuri gorriek gaur Lezaman goizeko 10:30etatik aurrera atzo atsedean eguna izan ondoren. Luis Fernandezek zuzentzen duen taldeak Mallorca izango du aurkari hurrengo jardunaldian. Partidua igande arratsaldeko 7:00etatik aurrera jokatuko da Mallorcako Son Moix futbol zelain.

Julen Guerrerok ezingo du jokatu Fernando Vazquezek zuzentzen duen taldearen aurka, Numançiren aurkako lehen txartel gorria atera ziotelako. Buruko minak Luis Fernandezentzat.